

P

Alberto Ladron Arana

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa  
2004



Zumaiko Udala

enkar  
txanpu



# P

Alberto Ladron Arana

Julene Azpeitia 17. ipuin lehiaketa

2004

2. saria

Zumaiian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Alberto Ladron Arana (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Nire lanbideak bidaia asko egitera behartzen nau. Beti ibiltzen naiz harat-honat, gaur hemen eta bihar han. Batek daki nora joko dudan etzi. Sekula ez naiz luzaro gelditzen inon. Orain dela zazpi bat urte hasi nintzen lanbide honetan, eta, zer nahi duzue, ez naiz kexatuko. Jainkoari eskerrak eman behar dizkiot irtenbide hau eskaintzeagatik.

Oker handiak egin nituen iraganean, ez dut ukatuko. Orain lotsatu egiten naiz nire krimen eta izugarrikeriak gogoratuta. Baina zorra kitatua dut. Ederki ordaindu nuen, espetxean eta espetxea baino okerragoak diren beste zenbait tokitan. Hala ere, noizbehinka nire aurreko bizitzako mamuak itzultzen zaizkit gogoan asaldatzera. Iraganetik datozkit kontu eske, odoldurik eta negarrez. Baina ez naiz orain aspaldiko kontu ilunei buruz arituko. Ez du merezi.

Orain bitzta berria baitut eta lan berria.

Lan berri honek jende asko ezagutzeko aukera ematen dit. Espero izatekoa zenez, denetarik dago: batzuk onak, beste batzuk ez hainbeste. Benetako putakumeren bat ere suertatu zait bidean. Eta eskarmentu handia daukat nik putakumeei antzematen, ni neu primerako putakumea izan bainintzen. Tira, putakumeak izan edo ez, jende gehienak ziztu bizian pasatzen dira, gauerdiko izar uxoa bezalakoak, nire gogoan inolako arrastorik uzteko astirik gabe.

Lan berri honetan hasi nintzelarik, interes handia hartzen nuen jendeari behar bezala erreparatzen, haren barreneko sentimenduen nolakotasunak eta horrelako gauzak. Nolabait errateko, haien barnea, haien arima aztertzea nuen atsegin. Urteen joanak, baina, nabarmenki apaldu du hasierako interes hura. Azken batean, jende gehienak berdintsuak dira, haien kezka antzekoak izaten dira, baita haien beldurrak ere. Lauzpabost arrazoik bakarrik mugitzen dituzte gauzak egitera: izua, gorrotoa, diru gosea, inbidia... Bai, baliteke sobera ezkorra edo zinikoa izatea, baina zer nahi duzue, dagoeneko zaharregia naiz olerkarien maritxukeriak sinesteko.

Hala ere, noizean behin, pertsonaia bereziren bat suertatzen zait bidean. Halakoetan, atsegin zait denbora apur bat xahutzea haren konpainian. Nagusiek ez dute zertan jakin. Pozik egon beharko lukete nire lanarekin, arraioa.

Istorio hau azken garaiotan ezagutu dudan tiporik berezienari buruzkoa da. Ez dizuet haren izena erranen, ez baita beharrezkoa. Elkar ulertzeko, P. erranen diogu.

Onartuko dut biziki gustatu zitzaidala P. presoaren izatea. Uste dut honezkero errana dizuedala, baina ez dut arazorik berriz ere errateko: oker handiak egin nituen nik iraganean. Horregatik P. ere *barnekoa* zela jakiteak berehala eragin zidan haren aldeko iritzia. Ezagutu nuenean bost urte eginak zituen espetxean, hiru segurtasun handiko moduluan eta bi heriotzaren korridorean.

Gogoan dut bisita egin nion lehenbizikoan negua zela eta espetxeko teilatu lauek elur geruza lodia zutelako gainean. Gau hartan bertan betetzekoa zen P.ren heriotza-zigorra, aulki elektrikoan. Ohi bezala, manifestari andana bildua zen espetxearen atarian, gauari eta elur erauntsiari aurre eginez. Batzuk erakunde kristauetakoak ziren: kandelak zituzten eskuetan, eta otoitzean ari ziren etengabe. Polizia lerroaz bestalde, ordea, zarata handiagoa ateratzen zuen beste talde bat zegoen. Haien P.ren biktimen argazki odoltsuak erakusten zituzten eta irain gordinak oihukatzen zizkieten beste taldekoei. Haietako batek "Burn in Hell!" zekarren pankarta handi bat astintzen zuen.

—Ez naiz infernuaren beldur —aitortu zidan P.k—. Ezta heriotzaren beldur ere.

Lasai samar zirudien bere ziegako bakardade izugarrian. Eskuineko eskuko hatz bat dardara ttikian zebilkion, baina hura zen antzeman nion urduritasun zantzu bakarra. Miretsi egin nuen gizon haren sosegua. Gutxi izaten dute halako lasaitasunik herioren aurrean.

Bere ohe estuaren gainean eseri eta karta sorta bat atera zuen. Bakar-jokoan hasi zen, aulkia mahai gisa erabiliz. Patxadaz, munduko denbora guztia edukiko balu bezala. Burua makurturik jokatzen zuen, eta ile iluna motz-motz egina zioten, aulki elektrikoak hobeki lan egin zezan.

—Aspaldi da jokatzen ez dudala —erran nion—. Lehen jokalaria bikaina nintzen.

—Poker?

Haren eskuei erreparatu nien. Hatz luzeak zituen, zurbilak, aszetikoak. Sainduak halako eskuak izanen zituztela bururatu zitzaidan. Baita poker jokalaria porrokatuek ere.

—Aspaldi da jokatzen ez dudala —erran nion berriz ere—. Ez dut uste berriro jokatu beharko dudarik...

Bakar-jokoan segitu zuen P.k, begiak kartetatik altxatu gabe. Haren arnasa pausatua eta sabaiko fluoreszentearen burrunba leuna ziren ziegako hots bakarrak.

—Tira, partidatxo bat ez dit kalterik eginen, ezta?

P.k begiak goratu zituen niganantz. Grisak eta metalikoak ziren. Bururatu zitzaidan haiek zirela haren biktimek ikusitako azken gauza. Ez zen oso oroitzapen ederra infernura eramateko.

—Zer jokatuko dugu? —galdetu zidan.

Burua astindu nuen, berak kartak nahasi bitartean.

Espetxetik atera nintzenean, berriz ere manifestarien artean pasatu nintzen. Ordurako bazuten gobernadoreak emandako atzerapenaren berri: talde kristauetako kideak belauniko zeuden elur gainean eta eskerrak ematen zizkieten Jainkoari. Beste taldeko manifestariek, berriz, ederra antolatua zuten.

Espetxeko auto bat sutan ikusi nuen. "Burn in Hell!" pankartadun tipoak zauri itsusia zuen kopetan, liskarren kontrako poliziak egindako gabon oparia, antza.

Urrundu bitartean, irribarre egin nuen.

Bi urte iragan ziren P. berriz ere ikusi nuenerako. Denbora tarte hartan maiz izan nuen tipo bakan harekin mintzatzeko gogo. Baina neu ere *barnean* egona naiz, eta badakit nolako aldartea edukitzen den ziegan. Batzuetan ongi hartzen dira bisitak eta beste batzuetan ez. Heriotzaren korridorean, gainera, edozein gorabeherak asaldatzen ditu presoak. Ez dituzte aldaketak maite, ez horixe.

—Elurrarekin batera itzuli zara —erran zidan P.k, begiak bakar-jokotik altxatu gabe.

Ez nion erantzun. Hormak betetzen zituzten egunkari ebakin horixketatik lerratu nituen begiak. Bere kasuari buruzko albisteak ziren gehienak. Bi urte lehenagoko manifestazioan ateratako argazki bat ikusi nuen. "Burn in Hell!" pankartadun tipoak elurra bere odolaz zikintzen zuen. Argazkia bikaina zen.

—Poztu eginen da putakume hori —erran zidan P.k, nire begiradari jarraituta.

—Hil egin zen —erantzun nion—. Poliziak emandako kolpeek garun enbolia bat eragin zioten.

P. isilik gelditu zen tarte luze batez. Azkenean, karta jokoari egin zion kasu.

—Orduan infernua ikusiko dugu elkar —murmurikatu zuen. Ez nien gorroto arrastorik antzeman haren hitzei.

Fluoreszenteen burrunba elektrikoa. Aire berritzeko sistemaren txistua. P.k kartak patxadaz aukeratu eta pila txikietan ordenatzen zituen.

—Banekien noizbait itzuliko zinela —erran zidan.

—Nik ere banekien. Gogo handia nuen zu berriz ere ikusteko. Askotan pentsatu izan dut zutaz bi urte hauetan.

—Poker? —galdetu zidan.

—Ez. Oraingoan ez.

Kartak biltzen hasi zen bere saindu eskuekin. Banan-banan, presarik gabe. Maitasuna zerion keinu batez kartoizko kutxatxoan sartu zituen. Karta sorta burukoaren azpian sartuta, hitz egin zidan:

—Badut istorio bat kontatzeko. lazko Gabonetan asmatu nuen. Elurra ari zuen eta zutaz pentsatu nuen. Iruditu zitzaidan gustatuko litzaizukeela.

Isilean iraun nuen tarte luze batez. Hasperen egin nuen:

—Tira, entzun dezagun.

— "Petxeroa" izenburua jarri diot.

Eta begietara so egiten zidala hasi zen:

*"Giltza-zarata nire ziegaren atean. Nire bila datoz. Arrastaka naramate leotzetako korridore ilunetan barrena. Oihuka, errugabea naizela aldarrikatzen dut. Alferrik da: zutabe bati lotu eta zartailuak bizkarra urratzen dit. Geroago, bi*

*borrero arduratu dira nire aurpegiaz, guztiz desitxuratzeraino. Eta amesgaiztoa hasi besterik ez da egin: karraketan barrena naramate, jendetza amorratu baten artean. Eta ni litxarero kaskar bat besterik ez naiz! Gaur bertan etorri behar zuen aitak nire askatasun-ordaina ekartzera. Borreroek nire arropak erantzi eta lurrera bota bitartean, garrasika aritzen natzaie. Jakin behar dute hau gaizkiulertze izugarri bat dela. Oihuka deitzen diot aitari, iltzeak eskumuturretan josi bitartean. Zergatik ahaztu nau?*

*Nire gainean jartzen duten afixa ere oker dago: nire izena ez da Jesus."*

Irribarre egin nuen.

—Irudimena oso gaitasun arriskutsua da espetxean —erran nion—, ia itxaropena bezain arriskutsua.

P.k irribarre lotsatia egin zidan.

—Orduan, itxaropenari buruzko beste bat kontatuko dizut.

Burua astindu nuen. Kanpoan, elurra espetxeko teilatuaren gainean pilatzen zen isilean.

—Gizon xelebrea zara, P.

—Bizi nahi dut —erantzun zidan—. Hori ez da arraroa.

—Tira, hasi zure istorio hori kontatzen.

—Honi, "Ameslaria" izenburua jarri diot.

Eztarria garbituta, P.k bere kontakizunari ekin zion:

*—“Urteak ziren neska hura ezkutuan maite nuela. Isilean. Harengatik bizi nintzen, harekin egiten nuen amets; harekin hartzen nuen arnasa eta bihotzak haren mugimenduen erritmora egiten zidan dantza. Nire maitasuna aitortuko nion unea irudikatzen nuen: batzuetan muzin egiten zidan, goxo baina irmo. Eta negar egiten nuen nire gelako isiltasunean, pentsatuz zein hutsik sentituko nintzen harengandik urrun. Halakoetan, bakardade eta buruhilketaren irudiz betetzen zitzaidan gogoa. Baina, normalean, berak irribarre egin eta maite ninduela erraten zidan. Orduan pozez lehertzen nintzen, eta musu ematen nion, eta mugarik gabeko gure maitasunaren ur asalduetan murgiltzen ginien.*

*Maitasuna bizimodu bihurtu nuen. Neure bizimodu.*

*Baina egun batean neskak atea jo zidan. Lotsati egin zuen irribarre. Gorritu egin zen bere maitasuna aitortu bitartean. Eta nik muzin egin nion: inork ez du eskubiderik neure ametsak lapurtzeko.*

*Oraindik harekin amets egiten jarraitzen dut. Beti eginen dut."*

P. isildu egin zen. Une luze batez inork ez zuen ezer erran. Espetxeak berak ere arnasari eusten ziola ematen zuen. Eraikin erraldoi hark giltzapean gordetzen zituen ehunka arimen dardara sentitzen ahal nuen. P. lurrari begira zegoen. Ez zuen urduri ematen, baina nik haren izuaren uhin beltzak ikusten nituen argi eta garbi. Banekien zerbait erran behar niola, erabakia hartu behar nuela, ezin nuela haren oinazea luzatu. Hasperen egin nuen. Bulego urrunen batean telefonoak jo zuen. Haren hotsa berehala eten zen, baina bazirudien

txirrin haren oihartzunek betiko iraun behar zutela, korridore luze hutsetan alderrai.

Ziegatik atera nintzen ezer erran gabe. P.ren istorioek durundi egiten zidaten buru barnean.

Gizon hark nitaz pentsatu izanak biziki hunkitzen ninduen.

Hurrengo garaietan harat-honat ibili nintzen. Bideak eta jendeak aldatu egiten ziren. Urte sasoiak ere bai. Dena film mutu batean bezala gertatzen zen, behar baino lasterrago eta kolorerik gabe. Askotan oroitzen nintzen P. presoaz. Bere ziegan irudikatzen nuen, bakar jokoan egiten. Edo agian beste istorio bat asmatzen, nire hurrengo bisitan kontatzeko. Negargura eragiten zidan irudi hits hark.

Beharrik, nire nagusiek ez zidaten ezer galdetu P.ri buruz. Aitortuko dut hasieran beldur apur bat izan nuela. Ez dakit ohartu ote ziren. Baiezkoan nago, ezinezkoa baita haiek ezertaz ez ohartzea. Bailliteke jakin-mina izatea, badakizue, kontu hura nola amaitzen zen ikusteko gogoia edo. Edo baliteke bost axola izatea. Auskalo. Badaezpada, ez nien galdetu.

Baina egunak joan egunak etorri, kontua da gero eta gogo handiagoa nuela P. berriz ere ikusteko. Elurrak haren oroitzapena ekartzen zidan. Neguko egun batean egunkari bateko azken orrialdean P.ri buruzko albiste labur bat ikusi nuen. Zegoeneko kazetariak ez zioten lehen bezainbesteko garrantzirik ematen aferari. P.k egindako krimenen zerrendak ere ez zirudien hain izugarria. Film txar baten laburpena zirudien. Oraingoan ez zen manifestaririk izanen espetxearen atarian.

P.ri bisita egiteko ordua zela erabaki nuen.

Aurrekoetan baino erorixeago aurkitu nuen. Haren burua erabat urdindurik zegoen eta nabarmenagoa zuen eskuetako dardara.

—Eta? —galdetu nion—. Ez didazu pokerrean egiteko proposamenik egin behar?

Ezezkoa egin zidan buruaz.

—Istoriorik kontatu ere ez?

Berriz ere ezezkoa. Begiak niganantz jaso zituen:

—Pentsatu dut agian zeuk hitz egin nahiko zenuela oraingoan.

Harriturik begiratu nion.

—Zer nahi duzu erratea?

—Inoiz kontatu diozu zure istorioa inori?

—Ez —aitortu nuen—. Zurekin bakarrik hitz egin dut azken urte hauetan.

P.ren begiek nigan josita jarraitzen zuten. Harritu egin ninduen begirada hartan beldur arrastorik ez aurkitzeak. Urduri zegoen, baina ez izaturik. Ezagutu nuenetik lehenbizikoz, benetako bakea antzeman nuen gizon haren baitan. Bakea eta jakin-mina. Horrek arindu egin ninduen.

Aulki bat hartu eta eseri egin nintzen.

—Eginbehar hau agindu zidaten —azaldu nion, nondik hasi ez nekiela—. Ez dakit nik zerbait ikastea nahi zuten, edo kontua zigortzea besterik ez zen. Ez dakit. Agian honek guztiak ez du zentzurik batere.

P.k baiezko isila egin zuen.

—Zergatik ni? —galdetu zidan.

—Atsegin zaitut. Agian zure antzekoa izan nintzelako. Garai batean, zuk baino txarkeria handiagoak egin nituen. Eta preso egon nintzen hau bezalako espetxe batean.

Ate hotsa belarriratu zitzaigun. Espetxea esnatzen ari zen, nahiz eta artean gauerdia izan. P.ri begiratu nion, baina berriz ere bakea besterik ez nuen aurkitu harengan. Berriz ere miretsi egin nuen gizon hura. Presoen ahotsak beste mundu batetik helduta bezala entzuten genituen.

P.k zalantza egin zuen hurrengo galdera egin baino lehen:

—Beldurrik izan zenuen exekutatu zintuztenean?

—Sekulakoa antolatu nien —irribarre egin nuen, lotsaturik—. Begia ubelduta utzi nion apaizari. Baina gero ez zen horrenbesterako izan. Dena berehala amaitu zen.

Urrats hotsa korridorean. Presoen garrasi eta irainek kontrapuntu latza egiten zioten hots mekaniko hari. Giltzak ziegaren atean.

P. zutitu egin zen. Ni ere bai. Elkarri begiratu genion.

—Bai patu bitxia zurea —erran zidan.

—Bai —burua astindu nuen—. Bizirik zein hilda, Herioren zerbitzari.

Alde egin nuen. Ez ditut agurrak gustuko.